

Egoibar - 1243. zenb.
XXIX urtea - 2022-05-13



TOKIKOM

BARREN

Karakateren aldeko babes eskea



EUSKARALDIA

HITZES EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

EUSKARALDIA



Kike Amonarriz

HITZALDIA:

“EUSKARALDIaren barruetan arakatzen”

*Zergatik EUSKARALDIA? Zer lortu da lehen bi edizioetan?
Zergatik EUSKARALDIaren hirugarren edizioa? Zeren bila goaz?*

*EUSKARALDIA ekimen sozialaren gaineko gogoeta pertsonala egiteko gonbidatu dugu Kike.
Zintzo eta zorrotz jarduteko, euskaltzale eta soziolinguista ikuspegiekin.*

*Maiatzak 17, asteartea
Aita Agirre kulturguneko areto nagusian
19:00etan*



Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea

Koordinatzailea:



Babeslea:



Sasoi berrirako jantzita



Barren astekariak 30 urte beteko ditu aurten. 30, bai! 30 urte daramatza euskara elgoibartarren eta mendararren etxeetara eramaten, eta jakitun gara gainera, etxe askotan euskaraz irakurtzen den produktu bakarra dela. Harro eta pozik gaude herritarrek astero egiten diozuen harrerarekin, beraz, lehenik eta behin eskerrik asko 30 urteotako ibilbide honetan eman diguzuen babesagatik. Denetik izan dugu 30 urteko ibilbide honetan, une hobek eta gogorragoak, baina zuei esker, zuek hala nahi izan duzuelako, hemen jarraitzen dugu. Hasieran zuri-beltzean jaio zen BARREN, eta poliki-poliki joan zen kolorezko jantzia prestatzen. Hasieran, azala soilik zen koloretan, gerora barruan ere bi koloretako tinta erabiltzen hasi ginen, azkenik astekaria erabat kolorez jantzi genuen arte. Atalak ere moldatzen joan gara beharren arabera, baina bada gaur arte aldaketarik izan ez duen zerbait: Formatua. Hasieratik astekaria izan da BARREN, eta beti A4 formatuan argitaratu dugu. Hemendik aurrera, txikiagoa izango da, baina lehen bezain mamitsua. Atal guztiei ertsiko diegu, eta tarteka gehigarri bereziak ere argitaratuko ditugu.

*Txikiagoa
izango da BARREN
aurrerantzean,
baina lehen bezain
mamitsua*

Ez da hausnartu gabeko erabakia izan formatua aldatzearena, baina zenbait arrazoik eraman gaituzte formatu berrira. Batetik, paperaren garestitzea aipatu behar da, eta bestetik, dirulaguntzak banatzeko irizpideetara egokitu beharra. Esan daiteke, bada, ezinbestean hartutako erabakia izan dela, baina erabaki honek aldi berean garai berrietara egokitzeko aukera emango digu. Aldizkari gazteagoa, freskoagoa eta modernoagoa da eskuartean duzuna, eramangarria, irakurterraza eta erakargarria. Kazetaritza egiteko modua aldatzen ari da etengabe eta sekulako abiaduran, gainera. Adituek diote kazetaritzaren sektorea trantsizio digitalaren aroan dagoela, eta horretarako prestatuko gara aurrerantzean.

Trantsizio horretan ez gara bakarrik egongo gainera: Debabarreneko hedabideak izango ditugu bidelagun. Elkarlanaren biderei ekin diogu, elkarrekin emaitza hobek lortuko ditugulakoan eta eraginkorragoak izango garelakoan. Herriari, gertuko informazioari eta herrigintzan diharduten eragileei, lotuta jarraituko dugu, baina bailarara leihoa zabaldua. Hazten jarraitu nahi dugu, zuekin batera eta zuen ondoan.

BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean

  **943 743 704**
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR

Argitaratzailea:



BARREN



ELGOIBARKO IZARRA

Eskualdearen Erakundeak

Babeslea: Laguntzaileak:

ELGOIBAR
UDALA
AJUNTAMENTSUMENDARO
1983

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Edurne Izagirre

Psikologoa

Barne ahotsa



“Geure barne ahotsa isilarazteak, geure barne hizkuntza alde batera uzteak, sortzen du sufrimendu emozionala eta psikikoa”

Jada 19 urte dira psikologiako lizentziatura amaitu nuela, eta oraindik orain, terapia lanak zertan datzan galdetzen didatenean, zaila egiten zait hitz gutxitan azaltzea. Sarritan galdetzen didate: 'Baina saioetan, hitzegin besterik ez da egiten?'.

Sarrionandiak badu liburu bat, *Ainhoari gutunak*, eta bertan badago kontakizun labur bat izugarri gustuko dudana: *Hitzekin jolasean*. Han islatzen da nola hitzak geureganatzeko lehenik esanahiz husten ditugun, ondoren geure bizipenei loturiko esanahiz betez. Honela, zuhaitza hitzak ez du esanahi berbera izango hirigunean hazi den ume batentzat edo baso baten alboko baserrian hazi denarentzat.

Hau da bakar eta berezi egiten gaituena, geurea bakarrik den hizkuntza hori, geure bizipenetan oinarrituriko hizkuntza. Ume garenean, hizkuntza barneratu eta mundua ulertu nahian sortzen dugu hizkuntza hau; geurea, mundua ikusteko eta interpretatzeko geure modua. Baina handitzen goazen heinean hizkuntza ofiziala, balioa duena ikasten saiatzen gara.

Honela, hainbat ahots izan ohi ditugu barruan; ikasle ona izaten erakutsi nahi diguna, lagunartera egokitzen erakutsi nahi diguna, alaba, emazte, ama, herritar ona izaten etab. Egoera askotan talka egiten du geure ahotsak beste hauekin eta sarritan geureari kentzen diogu balioa, gatazka ez sortzearren.

Geure barne ahotsa isilarazteak, geure barne hizkuntza hori alde batera uzteak, sortzen du sufrimendu emozional edo psikikoa. Eta esan genezake terapia espazioaren helburua barne ahots hori berreskuratzea eta indartzea litzatekela.



Ivonne Rubio Bauchet

2022ko maiatzaren 6an hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Ospitalerako igogailuaren benetako kostua ezkutatu nahian dabil Mendaroko Udala

Harritura irakurri dugu maiatzaren 6ko BARRENEN hurrengo esaldia, Mendaron eraiki nahi den igogailu berriari dagokionean "Proiektuaren azken aurrekontua 1.478.639,34 eurokoa izango da (+%21eko BEZa)". Gezurra da hori.

Kantitate hori lanen exekuzioari dagokiona baita soilik. Horrez gainera, osasun eta segurtasun koordinazioa eta kalitate kontrola ere kontratatu behar izaten dira.

Gainera ez zaigu batere txukuna iruditzen, gardentasunari dagokionez, BEZari dagokion parteak kostotik bereizi nahi izatea, zenbaki txikiagoak aurkeztu ahal izateko. Gardentasuna baino, iluntasuna da hori. Udaletik igogailua ordaindu behar denean BEZa ere ordaindu beharko da ba, eta beraz, egokiagoa da kostua zein izango den zuzen eta argi adieraztea: $1.478.639,34 \times 1,21 = 1.789.153,6$ euro kasu honetan.

Alderdi guzti hauek kontutan hartuta 1.884.673,31 euro kostatuko zaio igogailua eraikitzea Mendaroko Udalari. Horrelako lanen kasuan hain ohikoak diren gailuak kontuan hartu gabe, gainera.

Iluntasuna eta kontuak ezkutatu nahia besterik ez dugu ikusten Mendaroko Udalaren jarduteko moduan.

Mendaroko EH Bildu

Errezabal egoitzaren errealitatea

Azken osoko bilkuran Pilarreko orubea Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzeari buruz hitz egin zen. Izapide hori betetzeko, legeak orube honen egoera juridikoa aldatzea eskatzen digu, lurzoru publiko izatetik ondare patrimonial izatera igaroz.

21 milioiko aurrekontua duen azpiegitura bati buruzko erabakia hartu aurretik, egungo errealitateaz jabetu beharko genuke, eta errealitate horrek etorkizuneko belaunaldientzat izango duen eraginaz.

Gure bizitzako etapa honetarako nahiko genukeena alde batera utzita, ezin dugu ahaztu egungo errealitatea, non adinekoen zaintza, patologia anitzekin lotuta dagoen gehienetan, eta, beraz, zainketak espezializatuak eta jarraituak izan beharko lirateke.

Gai hauetan, zehazki adinekoak zaintzeari dagokionez, ezin dugu ontzat eman beste administrazio batzuek ezarri nahi diguten eredu, irakurketa propio eta sakona egin gabe.

Tamalez, hitzarmen honek argi uzten du Errezabal egoitza ekipamendu sozialeko egoitza izango dela, eta horrek muga asko dakartza emango den zerbitzuan, batez ere zerbitzu medikoei eta ekipamenduei dagokienez; izan ere, egoitza-eredu honetan ez da zerbitzu medikorik eskatzen, eta erizaintzako langile gutxi dituzte.

Sinatutako hitzarmenean figura soziosanitarioa jaso izan balitz, horrek berekin ekarriko luke egungo diziplina anitzeko arreta-beharrei aurre egin ahal izatea, kategoria horrek zerbitzu eta ekipamendu medikoak behar baititu eguneko 24 orduetan.

Jakina, kategoria horretako egoitza batek inbertsio handiagoa dakar, eta enpresa pribatuek etekinak lehenesten dituzte zainketen ginetik.

Kudeaketari dagokionez, kudeaketa publiko edo pribatuko ereduaren inguruan gizartean egon daitezkeen iritziak kontuan hartuta, gure inguruko egoitzetan kudeaketa desegokiaren ebidentzia ugari ditugu, eta adinekoen zaintza funtsezko zerbitzua izanik, gure beharretara gehien egokitzen den ereduari buruz erabakitzeak aukera izan beharko genuke.

Pilarreko orubea Aldundiari lagatzeko orduan aho batez onartu den bezala, lagapen-hitzarmen hau idazterakoan, EAJk atea itxi dio etorkizuneko egoitzaren kudeaketa publikoa izateko aukerari.

Gure ustez, halako gai garrantzitsu baten aurrean, erabakiak erantzukizunez hartu behar dira. Hitzarmen hau sinatzeak eragin handia izango duelako gure bizitzan eta etorkizuneko belaunaldiaren.

Elgoibarko EH Bildu

Altzolan eta Sigman hobekuntzak egiteko 350.000 euroko inbertsioa egingo du Udalak

Elgoibarko Udalak jakitera eman duenez, 350.000 euro baino gehiago inbertituko ditu aurten Altzola eta Sigma auzoetan, hobekuntza lanak egiteko.

Altzolari dagokionez, zenbait lan gauzatu dituzte dagoeneko: Karmen Plazako Udal eraikinaren teilatua berritu dute (45.000 €, BEZ barne), eta hilerrira sartzeko baranda garbitu eta eskudel berriak ipini dituzte elizarako sarreran (25.000 €, BEZ barne). Egiteko gelditzen diren lanen artean San Joan Plaza berrituko dute, eta 45.000 euroko kostua izango dute lanok. Hortaz, guztira 115.000 euroko inbertsioa egingo du Udalak aurten Altzolan.

Aurrekoek gainera, azken ufaletan kaltetutako Bainuetxeko Zumardia kalea asfaltatu eta inguru horretako petrila berreraikiko dutela jakinarazi dute Udaletik.

Era berean, Udalak 255.000 euroko aurrekontu-partida gorde du, BEZ barne,



Sigma auzoko irisgarritasuna hobetzeko. Lau etxebizitza-bloketan beste horrenbeste igogailu ipiniko dituzte. Horretarako, Udalak lursail publikoa laga die auzotarrei, igogailu horiek etxeurretan jarri ahal izateko. Auzotarrek hori egin ondoren, Udalak bidea luzatzeko eta berritzeko obrak hasiko ditu, etxebizitzaren ondoko aldean dauden aparkalekueetatik ekonomato zaharraren pareraino.

'Pintxoconcert' ekitaldia antolatu du Musika Eskolak datorren egunerako

Musika Eskolako Betsua txarangak hasiko du datorren egunean Pintxoconcert egitasmoa, eta txarangak gidatuko ditu herritarrek, herriko hainbat gunetara: Kultur Etxe aurea, Kalegoen plazara, eliza aurrera, Leku Ederrera eta azkenik

Musika Eskolan amaituko dute ibilbidea. Gune horietan, kontzertuak egongo dira. Lau edo bost musika talde egongo dira prest, eta bakoitzak bere emanaldia eskainiko du. 20:30 aldera amaituko da ekitaldia, Musika Eskola aurrean.

Erosketak egiteko Merkatu Plazan dauden orgak berritu dituzte



Elgoibarko Udalak 2018an jarri zuen martxan erosketak etxera eramateko orgak lagatzeako zerbitzu hau, eta orain, zortzi orga berri erosi dituzte, orain artekoak asko erabilia eta hondatuta zeudelako. Azoka plaza barruan daude orgak, herriko dendetan egiten diren erosketak etxera eramateko. Orgak erabiltzen dituztenek egunean bertan edo biharamunean itzultzeko aukera dute. Udaletik azaldu dutenez, zerbitzu honen helburua tokiko merkataritza dinamizatzea da, erosketak eramaten laguntzea eta kontsumo modelo jasangarriagoa sustatzea.

'Udako Kuadrilla' aisialdi programa antolatuko du udarako Nuala elkarteak



Aniztasun funtzionala duten 16 urtez gorakoentzako *Udako Kuadrilla* egitasmoa antolatu dute Nuala elkartetik udarako. Iaz antolatu zuten estreinakoz, eta gazteak zein gustura ibili ziren ikusita eta familientzako zein lagungarria izan den jakinda, errepikatu egingo dute aurten. Uztailean eta abuztuan, astean hiru arratsalde elkartuko dira gazteak begirale talde batekin, euren adinerako aproposak diren planak egiteko. Jarduerak eguraldiaren arabera izango dira (hondartza, igerilekuak, paseoak, merendolak, ur jokoak...). Iaz bezala, Santa Klara komentu zaharreko lokalak izango dituzte elkartzeko, 17:00etatik 20:00ak arte. Informazio gehiagorako nualaelkartea@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Nuala Elkartek dibertsitate funtzionala duten pertsonak gizarteratzearen alde lan egiten du eta, Elgoibarkoa izan arren, zerbitzua eskualde osoari eskaintzen dio.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, jubilatuen biltokian

Odol Emileen Elkartetik jakinarazi dute gaur odol ateratzeak egingo dituztela Elgoibarren, jubilatuen biltokian, 16:30etik aurrera. Ordua eskatzeko 623 328 408 telefono zenbakira deitu edo whatsapp idatzi behar da.

Elgoibarko Emakume Zientzialarien Topaketa antolatu dute maiatzaren 19rako

Elgoibarko 2022ko Zientzia Azoka antolatu du Elgoibarko Udalak maiatzaren 17rako, kultura zientifikoa gizarteratzeko helburuarekin. Azokaren barruan, **Emakume**



Zientzialarien Topaketa egingo dute Lila emakumeen etxean, Udaleko Sustapen Ekonomikoko eta Berdintasun sailek antolatuta. Mahai-inguru bat izango da topaketa horren muina, eta zientziaren alorrean lan egiten duten hiru emakume elgoibartarrek zientzian dauden estereotipoei buruz berba egingo dute. "Estereotipo horiek nola apurtu, zientzia alorrean emakumeek dituzten zailtasunen berri eman eta emakume elgoibartarren esperientzia ezagutzeko aukera emango digute", azaldu dute antolatzaileek. Mahainguruaren moderatzailea Ana Galarraga izango da, Elhuyarrek zientzia komunikatzailea. Eta hizlariak, berriz, honakoak izango dira: Leire Garate. Industria diseinuko eta produktu garapeneko ingeniaria; Ane Garmendia, Industria antolakuntzan ingeniaria, eta Nagore Ruiz de Escudero, Telekomunikazio ingeniaria, telematikaren espezializatua.

Mahai-ingurua 18:00etan hasiko da, eta bi ordukoa izango da. Ekimen honetan parte hartzeko izena eman behar da aurrez, link honetan: <https://labur.eus/ezt>.

Mahai-ingurua bukatu ondoren bere klownkonklusioen berri emango du Beatriz Egizabalek, "era ludiko batean eta umorez jantzita". Mokadu txiki bat janez amaituko dute saioa.

38 postu izango ditu hilaren 21ean Lekuederren egingo duten Zientzia Azokak

Bizipen zientifikoak Elgoibarko herriari zabalduko dizkiete herriko hurrek datorren maiatzaren 21ean, Zientzia Azokan. 11:00etatik 14:00etara izango da Lekuederren. Guztira 38 postu jarriko dituzte Elgoibarko ikastetxeetako gazteen eta haurren proiektuekin, Bizilabe ekimenean parte hartzen duten haurren lanekin, Robotika ikastaroko ikasleen lanekin eta stand profesionalak eta Lanbide Heziketako ikastetxeen eta unibertsitateen postuak ere izango dira. Bertaratzen direnek bizipen zientifiko ugari bizitzeko aukera izango dute azokan: txikitxokoa, makina errazak, robotika, programazioaren oinarriko ezagutzak, esperimendu likatsua, nfc teknologia, txinpartak ateratzeko eta herria sutan jartzeko esperimenduak, dinosauroen etorreraren ihes gela eta photocall-a. HHko umeetatik hasi eta Batxilergora artekoentzako ekintzak egongo dira. Tailer zientifikoetan parte hartzeko alde zurreratik izena eman beharko da azokan jarriko duten informazio-gunean, 10:30etik 12:45era.



Azokako parte-hartzaileak hauek izango dira: Elgoibar BHI, Berkoa, Meka, IMH, DanobatGroup, Herri Eskola, Robotika dibertigarria, Bizilabe, Ikastola, Makina erremintaren museoa eta Elhuyar.

65 umek hartuko dute parte Mendaroko Udalaren udalekuetan

Mendaroko Udalak antolatutako udalekuetan 65 hurrek hartuko dute parte aurtengo udan; lehen txandan, 62 hurrek, eta bigarren txandan, 38k. Izen-ematea berresteko dokumentazioa aurkezteko epea maiatzaren 18an amaituko da. Ordainketa agiria bidali behar da erregistroa@mendaro.eus helbide

elektronikora, eta familia ugarien kasuan, hori bermatzen duen ziurtagiria ere bai. ES29 2095 5054 011061225891 (Kutxabank) kontu korrontean egin behar da ordainketa, kontzeptuan haurraren izena eta 2 abizenak adierazita. Familia ugarietan txanda berdinean 3. haurrari 25 €ko deskontua egingo diote.

Martxoan baino 30 langabe gutxiago zenbatu dituzte apirilean Debabarrenean

2.739 langabe zenbatu dituzte apirilean Debabarrenean, martxoan baino 30 gutxiago hain zuzen ere, eta une honetan %10,45ekoa da lanbabezia-tasa gure eskualdean. Elgoibarri dagokionez, 469 lagun zeuden langabezian apirilean, martxoan baino 11 gutxiago, eta gure herriko langabezia-tasa eskualdeko batez bestekoaren azpitik dago, %8,65ean. Mendaron aldiz, apur bat gora egin du

langabeziak apirilean, eta orain 79 langabe daude, martxoan baino lau gehiago. Hala ere, Debaren atzetik, Mendaro da langabezia-tasa txikiena duen herria eskualdean: %7,78. Deban %6,32koa da; Eibarren %12,40koa, Mutrikun %7,89koa, eta Sorluzen %13,84koa. Eibar eta Sorluzeko langabezia-tasak, beraz, eskualdekoaren gainetik daude, eta gainerako herrietan, azpitik.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112




688 634 044



Plaza txikian jarlekuak behar dira:

"Plaza txikiko aparkalekuan badaude auto artean geratzen diren tarteak, eta horietan jarlekuak jartzea ondo legoke. Orain ere badaude gutxi batzuk, baina adineko jende asko ibiltzen da ingurune horretan, eta leku falta izaten dute. Askotan sei lagun egoten dira banko bakar batean eserita.



Aita Agirreko garajeetatik irteteko ispilu bat behar da:

"Aita Agirreko garajeetako irteera oso arriskutsua da. Umeak espaloitik etortzen dira, askotan jolasean edo korrika, eta garajetik irteten ari den auto-gidariak ez du ikusten espaloitik jendea datorren edo ez. Susto bat baino gehiago gertatu izan da, eta iruditzen zaigu konponbide erraza duela. Ispilu bat jartzeak asko hobetuko luke egoera eta arriskua txikituko litzateke".



San Roke parkeko jarlekuak zabalera handiegia dauka bizkar aldeko egurrean:

"Adineko jendea agian ez da ohartzen, baina umeentzako ez dira egokiak San Roke parkeko jarlekuak. Bizkarreko egurretik jarlekura dagoen tarte handiegia da, eta umeak erortzeko arriskua dago. Joan zen egunean nire umea erori zen, eta atzeko aldera altura handia dago. Sekulakoa hartu zuen aurpegian, baina larriagoa ere izan zitekeen kolpea. Eskertuko genuke dagokionak, neurriak hartzea".



HAUTSAK HARROTU DITU KARAKATEN EGIN NAHI DUTEN PARKE EOLIKOAK

✍ Aina Argoitia / 🗿 Ander Izagirre

Karakaten bi haize errota ezartzeko asmoa agertu zuen otsailean Green Capital Development 135 enpresak, eta geroztik, aurreproiektu hori gauza ez dezaten lanean ari dira Soraluzeko Udala eta Elgoibarko eta Soraluzeko Karakate Bizirik plataformak [Elgoibarko Udaletik esan dute ez dagoela proiekturik eta inork ez diela eskaerarik egin, baina gaiaren jarraipena egiten ari direla]. Plataformatik nabarmendu dute ondare natural eta arkeologiko handiko eremua dela Karakatekoa, "zaindu beharrekoa", eta energia ekoizpenak naturarekin eta justizia sozialarekin bateragarria izan behar duela. Domekan protestamartxa egin zuten eta bihar egitasmoaren kontra daudenen argazkia aterako dute Kalegoen plazan, 14:00etan. Sinadurak biltzeari ere ekingo diote.

Otsailean zabaldu zen Green Capital Development enpresaren asmoen berri eta martxo hasieran abiatu zuen enpresak Karakate gainean bi dorre elektriko jartzeko prozedura [Martxoaren 4an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarkia]. Lehiakideak aurkezteko epea zabaldu zen orduan, baina barikuan jakin zen ez zela beste enpresarik aurkeztu. Orain, beraz, sei hilabete izango ditu enpresak exekuzio proiektua aurkezteko. Proiektuarekin batera, zentral eolikoa eraikitzeak ingurumenean eragingo duen inpaktuaren gaineko txostena ere aurkeztu beharko du, eta alegazioetarako tartea zabalduko dute gero. Jaurlaritzak hartuko du azkenean behin betiko erabakia.



Madriilen du egoitza Green Capital Development enpresak eta lau parke eoliko egin



nahi ditu Gipuzkoan: Buruza [Azkoitia-Zumarraga eta Urretxu udalerririk ukitzen ditu], Trekutz [Urretxu-Antzuola], Ezkeltzu [Zizurkil-Usurbil] eta Karakate. Soraluze eta Elgoibar herriei eragiten die azkenak. Ez da kontu berria gurean. Izan ere, 2002an ere proiektatu zuten beste parke eoliko bat bat inguru horretarako, baina ez zuten gauzatu, hein batean herritarrek eta inguruko udalek egin zuten presioagatik. Orduko hartan, Karakatek Irukurutzetarainoko mendilerroan hogeit hamar eoliko egitea aurreikusten zuten, baina Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak atzera bota zuen 2002ko martxoaren 7an. Arrazoi nagusizat bertan dauden metal garaiko aztarna arkeologikoak hartu zituen.

Orain ere, inguru hori babestu beharreko gunea dela arrazoitzen dute Karakate Bizirik


2002. urtean ere proiektatu zuten beste parke eoliko bat Karakaterako, baina Eusko Jaurlaritzak atzera bota zuen. Arrazoi nagusizat aztarna arkeologikoak hartu zituen



Ezkerreko mapan, marra urdinez markatuta, parke eolikoa non eraiki nahi duten. Marra berdez, Plazentzia-Elosua estazio megalitikoaren azalera. Puntu berdez, Aranzadik topatutako megalitoak, eta lerro laranja, babestu beharreko erradioa. Eskuinean, Lurralde Plangintza Sektorialaren aurrerapen planoetako bat. Eolikoak eraikitzea debekatuta dauden guneak zehazten dituzte bertan.

plataformetakoek, balio naturala eta mendilerro osoan Aranzadik egindako aurkikuntzak arazoituta. Berez, interes bereziko gune izendatua dago Karakatetik Gizaburuagako tumulora arteko lursaila, balio geologikoa eta naturalistikoa aintzat

hartuta, baina zatirik handiengan salbuetsita dago babes maila handiena emango liokeen Plazentzia Elosua estazio megalitikoaren izendapenetik. Gizaburuagako tumulua estazio barruan dago, baina babes hori Otsoaldasoro ingururaino iristen



Elgoibarko eta Sorluzeko Karate Bizirik plataformek argitaratu duten konparatibetako bat.



Domekan, 200 bat lagun elkartu ziren Karakaten Soraluzeko eta Elgoibarko Karakate Bizirik plataformek ant

da, GEO Euskadik emandako datuen arabera, eta beraz, egin nahi duten parkearen barruan geldituko lirake azkena egindako aurkikuntzetako bi. Mendi gain guztia estazio megalitiko izateak emango lioke babesa eremu horri. Hori bai, Jexux Tapia Aranzadiko Historiaurrea Saileko adituak zehaztu du: "Horrek ez du esan nahi estazio megalitiko batean ezin denik ezer egin, baina bai egiten diren jarduera guztiak kontrol arkeologiko batekin egin beharko direla, estazio megalitiko mugatzeko arrazoiak eta balioak ez direla urratzen bermatu behar baita".

PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

Bi dorre elektriko jarri nahi dituzte kilometro pasatxoko zatian, Karakatek Gizaburuagako artean: Akilarren bata, eta Otsoaldasoren bestea, kilometro koadro erdiko eremuan. Haize errota bakoitzak 4,8 KW-eko potentzia sortuko luke. Guztira: 9,6 MW.

Aurreproiektuan jasotakoaren arabera, dorre bakoitzak 101 metroko altuera izango luke, eta

Hegal eta guzti 178 metroko garaiera izango lukete haize errotek. Konparazio batera, San Bartolome parrokiak halako lau neurtuko luke eta Bilboko Iberdrola dorreak beste

hegal bakoitza, berriz, 77 metro luze izango litzateke. Beraz, guztira, hegal eta guzti, haize errota bakoitzak 178 metroko garaiera izango luke. Alderaketak ere egin dituzte Karakate Bizirik plataformakoek: Elgoibarko San Bartolome parrokiak halako lau neurtuko luke haize errota bakoitzak eta Bilboko Iberdrola dorreak beste - 42 metroko altuera du parrokiak eta 165 metro garai da Iberdrola dorrea-. Han bertako adibidea erabili, Karakateko antena bera baino bi aldiz handiagoak lirake haize errota, 67,3 metro dituelako antenak. Dorreen oinarriek, bestalde, 25,8 metroko diametroa izango lukete, eta hiru metroko sakonera, lurpean.



Platutako protesta martxan.

Bi haize errotek sortuko luketen energia Azkueko zentralera ekarriko lukete gero lurpeko kableatuaren bidez, handik sare orokorrera lotzeko. Haize errotak eraiki asmo dituzten lekutik Azkuera, 4,8 bat kilometroko bidea dago kable-sareaz lotzeko. Aurrekontu osoa 10.762.918 eurokoa da, aurreproiektuaren arabera beti ere.

KONTRAKO ARGUDIOAK

"Astakeria hau gelditu behar dugu", azpimarratu du Andoitz Agirregomezkortak, Morkaiko Mendizale Elkarteko eta Elgoibarko Karakate Bizirik plataformako kideak. Akilarren

eta Otsoaldasoro gainean ipini asmo dituzten haize errotek Elgoibarko mendizaleek duten "arnasgune eta leku kuttunetako bat" zeharo hondatuko lukeela zabaldu zuten Morkaikotik otsailean, lantaldea eratzeko deia egin zutenean. Apirilean sortu zuten plataforma eta proiektua gelditzeko asmoari beste bat gehitu zioten: eredu energetiko alternatiboen inguruan gogoeta egitea.

Soraluzen pauso bat aurrerago zihozten ordurako. Martxoko osoko bilkuran, ahobatez onartu zuen hango udalak *Mendigainean eolikorik ez!* izeneko mozioa. Soraluzeko Udaletik esan zuten energia berriztagarrien alde zeudela eta jakin bazekitela halako proiektuak jartzeko ingurumen kalteak ekiditea saihestezina dela, baina hein berean, konpromisoa agertu zuten Dolmenen Ibilbidea proiektua bultzatzeko eta proiektuaren kontra alegazioak aurkezteko.

Karakateko mapa zabaldu du mahai gainean Agirregomezkortak. Proiektuak ukitutako azaleraren koordenatu geografikoak eta estazio megalitikoaren mugak markatuta ditu bertan, Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren erreferentziako geotariaren bidez (GEO Euskadi). "Hemen garbi ikusten da lau puntuak batuta, proiektuak Elgoibarri ere eragiten diola, haize errotak eurek Soraluzen kokatu nahi dituzten arren [aurreproiektuaren arabera, Elgoibarko mugatik hiru metrora eraiki asmo dute Akilarreko haize errota, eta mugatik bederatzi metrora Otsoaldasorokoa]. Ikusten dugu, era berean, estazio megalitikoaren azaleraren zati bat parke eolikoaren lau koordenatuak batuta sortzen den lauki luze horren barruan dagoela". Mapari erreparatuta, ikusiko dugu era berean, Aranzadik azkeneko topatu dituen bi megalitoak - Otsoaldasoro 1 eta 2- parke eolika eraiki nahi duten eremuaren barruan daudela eta Gortazarkoa muga, baina kanpoan.

Baina bada gehiago ere, plataformakoen esanetan: laukiluze horrek harrapatzen duen Elgoibarko zatia -gaur pagadia dena- babes bereziko gunea da Elgoibarko Hirigintza Plan Orokorrean eta "babes integralera bideratutako erabilerak" baino ez daudela baimenduta hor. Hirigintza Plan Orokorrean bertan zehazten dituzte galarazitako erabilerak, eta tartean, parke eolikoak daude. Parke eolikoaren definizioa ere jasota dago, bai eta parke eoliko baten elementu behinenak zeintzuk diren ere: aerosorgailua bera, parke barruko kanalizazio elektrikoa eta

**GEO Euskadi erreferentziako
geotariaren arabera,
estazio megalitikoaren azaleraren
zati bat parke eolika eraiki
nahi duten eremuaren barruan legoke**



Aranzadikoak eta taldera batu zaizkien boluntarioak Otsoaldasoroko tumuluan lanean, asteburuan.

azpiestazioa. "Garbi dago beraz gure herriko arautegia urratuko lukeela, parke barruko kanalizazio elektrikoa Elgoibarko lurretan eraiki nahi dutelako eta haize errotek sortzen duten energia Azkueko zentralera ekarriko dutelako".

Ez du ulertzen Elgoibarko Udaletik eman dieten erantzuna: "Elgoibarko Udaletik esaten digute haize errota Sorraluzeko lurretan eraikiko dituztela, eta hala da, gure mugatik hiru metrora egongo delako Akilarkoa adibidez, baina haize errota horietako bakoitzak 25,8 metroko diametroa duen oinarri bat izango du, beraz, oinarri horrek bete-betean harrapatzen ditu gure lurrak". BARREnek galdetuta, Udaletik adierazi dute ez dutela momentuan ezer esateko: "Ez da proiekturik aurkeztu, ezta inolako eskaerarik egin ere. Ez dago proiekturik oraindik, eta sei hilabete ditu enpresak idazteko. Udała gaiaren jarraipena egiten ari da eta elgoibartarren interesen alde jardungo du. Bai berresten du Udalak Dolmenen ibilbidearen aldeko babes osoa". Azken horren harira aipatzekoa da otsaileko osoko bilkuran, ahobatez onartu zuela Udalak Dolmenen Ibilbidea kudeatzeko hitzarmena beste bi urtez luzatzea.

Egitekoen artean ikusten dute Karakate Bizirik plataformakoek ere energia berriztagarriak sustatzea. Arabako Mendiak Askeko Iñigo Leza eta Oier Etxeberria Goienar irabazi asmorik gabeko

kooperatibakoa gonbidatu zituzten maiatzaren 4an Elgoibarrera. Etxeberriak esan zuen badagoela modua egungo bizi-kalitatea galdu gabe energia kontsumoa txikitzeko, eta horretarako bidea herriz herri energia komunitateak sortzea dela, komunitate horien baitan energia berriztagarrien, kontsumo murrizketaren eta efizientziaren inguruko proiektuak lantzeko. "Guk hor ikusten dugu bidea. Energia berriztagarrien alde gaude, baina esaten duguna da Karakatek Gizaburuagako tumulura arteko eremua ez dela horrelako zentral eoliko bat jartzeko lekua".

Zerrendatuta dituzte kalteak, Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoeekin bilera-txandak hasi nahi dituztelako, Karakateko ingurua babesteko eta proiektua geldiarazteko pausoak eman ditzatela eskatzeko. "Instalazio eolikoak eragingo lituzkeen kalteak askotarikoak dira: naturgunearen industrializazioa, inpaktu paisajistikoa eta akustikoa, ondare arkeologikoa eta geolikoaren suntsitzea, haize erroten hegalek biodibertsitateari eragin diezaioketen kaltea, sare hidrologikoan izan dezakeen eragin negatiboa... Ez delako eraikitzea bakarrik, materiala haraino eramatean ere sortuko direlako kalteak", zehaztu du Agirregomezkortak.

Aurreproiektuan ez dute zehazten material guztia nondik igoko duten Karakate gaineraino,

baina bai zer ezaugarritako errepidea beharko luketen. Errepideak, gutxienez, 4,5 metro zabal izan beharko lituzke eta %15ekoa baino pendiz apalagoa. Gehitu horri errebueltak, gutxienez, 60 metroko erradioa izan behar luketela, eta beraz, derrigor-derrigor zabaldu beharko lukete gaurko errepidea.

ONDARE ARKEOLOGIKOA

Karakate babesteko ahalegin horretan, Elgoibarko eta Soraluzeke zenbait boluntario Aranzadiren indusketa-taldera batuta dabilta azkeneko hilabeteotan. Urte hasieran abiatu zuen Aranzadik mendigaineko ondare arkeologikoa ikertzen jarraitzeko kanpaina, azken 10 urteotan bertan egiten diharduten azterketa-lanekin jarraituz. Aurtengoan, baina, ikerketa Plazentzia-Elosua estazio megalitikoaren eremutik kanpo kokatu dutela zabaldu dute, ofizialki estazioa hasten den lekutik Karakateko tontorrera bitarteko zatian. Jexux Tapia arkeologoaren agindutara ari dira guztiak. "Oso arraroa egiten zaigu mendilerro guztian hainbeste megalito egotea eta justu azkeneko kilometro pasatxo horretan ezer ez egotea. Horregatik miaketan ari gara, uste dugulako antenetara arte zabaldu beharko litzatekeela babes berezi hor".

Inguru horretan, historiaurreko bi monumentu aurkitu dituzte dagoeneko Karakateko tontorretik gertu -Gortazar eta Otsoaldasoro tumuluak- eta hirugarren batean lanean ari dira orain, Otsoaldasoron [Otsoaldasoroko biak parke eolikoa proiektatu duten eremu barruan daude eta Gortazarkoa perimetro horretatik gertu]. "Otsoaldasoroko azken horrek material arkeologiko gutxi eman du momentuan, baina egitura prehistoriko bat egon badago, beste hilerri txiki bat dirudiena; asteburuan argitzen saiatuko gara. Nik neuk garbi daukat badela".

Azkeneko bi monumentuen gaineko txostena osatu eta aurkeztu du Aranzadik Gipuzkoako Foru Aldundian eta orain Jaurlaritzari dagokio horiek katalogatu, eta balioa emateko, lege babesa ematea. Tramitea hasten duen momentuik bertatik eta Jaurlaritzak behin betiko erabaki bat hartu arte, baina, monumentuak babestuta geldituko lirateke. "Horrek ez du esan nahi, ordea, automatikoki zabalduko litzatekeenik espazio megalitiko eta Jaurlaritzak inguru osoa babestuko lukeenik", zehaztu du Tapiak. Eta azpimarratu du

Estazio megalitikoak hasten den ingurutik antenetarainoko zatian lanean ari dira Aranzadikoak. Momentura arte, historiaurreko bi monumentu aurkitu dituzte eta hirugarren batean lanean ari dira

ondoren: "Moralki eta etikoki, baina, errealitate arkeologikoa babesteko irizpideak jarraitu behar ditu administrazioak eta eremu horretan arrasto eta informazio gehiago topatuko bagenu, zabaldu egin beharko luke babestutako eremua. Hala iruditzen zait neri". Soraluzeke Udalak bere aldetik aztarna arkeologiko horiek [aztarna megalitikoak eta erromatar garaiko gotorlekua] oinarritzko babesa duten kultura-ondasun izendatzea nahi du eta asteen hasi du horretarako prozedura administratiboa. Prozedura horren barruan, kontsulta publikoa hasi du herritarrek eta erakundeek hogeit eguneko epean ekarpenak egin ditzaten. Horretarako: udala@soraluze.eus.

2021ean lantzen hasi ziren Energia Berriztagarrien LPS Lurralde Plangintza Sektorialean, ondare kulturalaren ikuspuntutik babestuta dauden eremuak errespetatuko dituztela jasota dauka Jaurlaritzak eta gauza jakina da, ere berean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak derrigor-tuta daudela LPSan jasotakoa errespetatzera [Lanketa hasita duten arren, LPS egiteko eta tramitzeko prozesua apirilean esleitu dute, 24 hilabeterako]. Planaren aurrerapenean, 2021eko maiatzaren 9ko Euskal Kultura Ondarearen 6/2019ak legearen 29aren artikulua aipatuta esaten da ondare kulturalari dagozkion elementuak babesteko betebeharra dagoela. Era berean, aipatutako legearen 50. artikuluan ezartzen da berariaz debekatuta dagoela kultura ondarearen gainean kutsadura bisuala eta akustikoa sor dezaketen elementuak instalatzea, eta espreski aipatzen ditu energia berriztagarria ekoizteko egiturak, haien ezaugarrietatik: tamaina, eraikitze erabilitako materiala... Dena den, LPS horren aurrerapen planoetako batean jasota dute eolikoak non egongo liratekeen debekatuta, eta gure kasuan, estazio megalitikoari eta Karakateko antenari eragiten dio debekuak.

Euskaraldia ariketari buruzko gogoeta egingo du Kike Amonarriz soziolinguistak martitzenean

Elgoibarko Euskaraldia Taldeak Kike Amonarriz euskaltzale eta soziolinguistika ekarriko du Elgoibarrera martitzenean, hilaren 17an, Euskaraldia ariketa sozialaren inguruko gogoeta pertsonala egitera. Zergatik Euskaraldia? Zein dira arrazoiak? Zer lortu da lehen bi edizioetan? Zer geratu zaigu, momentuz, nahi eta ezinean? Zergatik Euskaraldiaren hirugarren edizioa? Zeren bila goaz?. Galdera horiei eta beste batzuei erantzungo die Amonarrizek, "zintzo eta zorrotz, euskaltzale eta soziolinguista ikuspegitik".



Hitzaldia Aita Agirreko areto nagusian izango da, 19:00etan hasita.

Haur eta gazteen transexualitateari buruzko hitzaldia, Mendaron, hilaren 17an



Haur eta gazteen transexualitatearen inguruko hitzaldia antolatu du Mendaroko Arno Guraso Elkarteak maiatzaren 17rako (martitzena). Hitzaldia Bea Sever Egaña Naizen Euskal Herriko adin txikiko transexualen familien elkarteko bozeramaileak emango du. Sexologoa eta kazetaria da Sever eta familientzako arreta eman eta nerabeen taldea koordinatzen ditu Naizen elkartetik. *Haur eta gazteen transexualitatea. Ez da nire gorputza, zure begirada da* izena eman diote hitzaldiari eta udaletxeko Otarre aretoan izango da, 18:00etan. Izena emateko: arnoformakuntza@gmail.com

Familian egiteko orientazio proba antolatu dute Kiribilduz egitasmoaren barruan

2-8 urte bitarteko haurrak dituzten familientzako egitasmoa da Kiribilduz, eta maiatzaren 21erako (zapatua) familian egiteko orientazio proba antolatu dute. 10:00etatik 13:00etarako ordutegian egingo dute, Idotorben. Familiako 9 euro ordaindu beharko dira izena ematean (Elgoibarko Izarrako bazkideek 8 euro). Izena emateko epea maiatzaren 9an zabaldu zuten eta maiatzaren 16an bukatuko da. Izena emateko bi bide daude: on-line, Elgoibarko Izarraren webgunean sartuta, edo aurrez aurrez, Elgoibarko Izarraren bulegoan (Aita Agirre kulturgunea, 3).

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua emango du domekan, Herriko Antzokian

Domekan, maiatzaren 15ean, kontzertua emango du Elgoibarko Udal Musika Bandak, Herriko Antzokian, 12:30ean. Juanma Saez Etxabek zuzenduko du kontzertua eta honako pieza hauek joko dituzte: *El Camino* (J. V. Egea), *La Gran Via* (Chueca-Valverde), *Highlights from 'Exodus'* (Ernest Gold), *Eloise* (P. Ryan), *Aihotz Plazaren Lagunak* (Juanma Saez).

Hezkuntza Legeaz ariko da Jokin Bildarraitz sailburua, Elgoibarren



Jaularitzako Hezkuntza sailburu Jokin Bildarraitz (Tolosa, 1963) ekarriko du EAJK maiatzaren 19an Elgoibarrera, Hezkuntza Lege berriaz hitz egitera. Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian emango du hitzaldia, 18:30ean hasita. Legebiltzarreko gehiengoak adosturiko dokumentua oinarri hartuta, etorkizuneko Euskal Hezkuntza Legearen testu artikulatua idazten ari da Hezkuntza Saila, eta uda baino lehen aurreneko zirriborroa prest izateko esperantza agertu du Bildarraitz sailburuak, EITBn emandako elkarrizketa batean. Udazkenean lege egitasmoa prest izatea nahi dute, Eusko Legebiltzarrari bidali ahal izateko, tramitazioari ekin diezaion.

Elgoibarko EAJK antolatu du hitzaldia, eta alderditik aurreratu dute hitzaldi gehiago ere izango direla datozen asteetan.

Apirileko Feria antolatu dute Mendaron biharko

Apirileko Feria antolatu du Mendaroko Aitzbeltz tabernak biharko. Antolatzaileek jakinarazi dute 12:00etan hasiko dituztela ospakizunak eta parte hartzera deitu dituzte herritarrak. Eguerditik aurrera flamenkoa entzun ahal izango da San Joseko plazan eta Andaluziako dantzak dantzatuko dituzten dantzariak ere izango dira.



Terese Guenetxeak irabazi du 'Oporretan irakurri' argazki lehiaketa

Terese Guenetxea Zabalak irabazi du Elgoibarko Gotzon Garate Udal liburutegiak antolatutako *Oporretan irakurri* izeneko argazki lehiaketa. Guztira 34 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara, eta irabazleak tableta bat jaso du sarritzat. Epaimahaia Jokin Martinezek eta Manu Sanchezek osatu dute.

Mahai-jokoen jardunaldirako atariko saioa egingo dute gaur, Mendaron

Mahai-jokoen jardunaldia antolatu du Odisea elkarteak maiatzaren 21erako, Udalaren eta Devir argitaletxearen babesarekin eta Uztargi eta Arno Guraso Elkartearen laguntzarekin. Ekitaldia frontoian izango da, 10:30ean hasita. Odisea elkarteak askotariko jolasak ekarriko ditu Mendarora eta elkartekideak eurak arituko dira joko-arauak azaltzen.

Jardunaldi horren barruan, Catan txapelketarako kanporaketa ere jokatu dute. Devir argitaletxeak argitara emandako jokoak da Catan, mahai-joko modernoetan lehenetarikoa, eta 2015az geroztik euskarazko bertsioa ere badu. Txapelketarako hogeitaz laguntzako lekua egongo da eta 10 urtez gorako edonork eman ahal du izena (adingabeek gurasoen baimena beharko dute). Txapelketa 10:00etan hasiko da. Izena emateko: contacto.odiseaeibar@gmail.com. Izena emateko azken eguna maiatzaren 20a. Gaur, berriz, Catan jokoak ezagutzeko aukera emango dute. Uztargi tabernan izango dira 16:30etik 20:30era bitartean joko-arauak azaltzen.

Banatu dituzte idazlan lehiaketako sariak



171 lan aurkeztu dituzte Elgoibarko Udalak, antolaturiko Idazlan lehiaketara, eta horietatik 27 saritu ditu Jasone Osorok, Jon Eugik eta Iñigo Otañok osaturiko epaimahaiak. Lehiaketaren helburua ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzea da eta aurten, ikasleek irudimenerako erakutsi duten gaitasuna nabarmendu du epaimahaiak. Udalak, azken bi edizioetan saritutako

lanekin liburuxka bat osatu du, eta 300 ale argitaratu ditu. Idazteko zaletasuna sustatzeko, bestalde, *Bota literak!* izeneko idazle gazteen taldea sortu dute aurten, 12tik 15 urtera bitarteko neska-mutilez osatua. Bi astean behin elkartzen dira Aita Agirren, idatziz eta irakurriz elkarrekin gozatzeko. Taldean parte hartu nahi duenak uskara@elgoibar.eus helbidera idatzi behar du.

Nazioarteko Dantzaren Eguna ospatu zuten Biraka Barra ikuskizunarekin



Elgoibar, Eibar eta Soraluzeko 210 dantzari eta beste horrenbeste ikusle edo gehiago batu ziren zapatuan Biraka dantza taldeak Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira antolatutako Biraka Barra ikuskizunean. Adin guztietako dantzariak zortzi ariketa egin zituzten jendaurrean klaseetan egiten dituzten ariketak erakusteko. Plaza osoa hartu zuten dantzariak eta barra gisa erabili zituzten barandei helduta egin zituzten ariketak.

Taupadaren 'Zinemakopa' ikuskizunerako sarrerak salgai daude

Taupadak Zinemakopa antzezlan taularatuko du maiatzaren 27an Herriko Antzokian, eta dagoeneko sarrerak salgai daude herrikoantzokia.eus webgunean. Hainbat film ezagunetako pasarteetan oinarritutako antzezlan berria prestatu dute, Edurne Lasaren zuzendaritzapean. Jose Mari Larrañagak teknikari lanak egingo ditu eta aktoreak hauek izango dira: Ibai Leon, Oihane Gartzia, Aitor Guisasaola, Nagore Cid, Sara Iriondo, Dani Zelaia, David Rodriguez, Jon Iraola, Maixux Otaegi, Ruben Markina, Sohelen Vargas eta Gorka Luna.

Familia-erromeria, gaur zortzi, Azkueko berdegunean

Erromeria antolatu dute maiatzaren 20rako Atxutxiamakak, Udal Ludotekak eta Musika Eskolak, Udalarekin elkarlanean. 16:45ean elkartuko dira Maalan eta denak batera joango dira Azkueko berdegunera. 17:30ean hasiko da erromeria, eta 18:30ean umeentzako tailerrak egingo dituzte. Eurria egiten badu, Maalako parkean egingo dute gutzia.



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162



Jon Aranoa
 Guillermo Torres



Elgoibar
 Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Astelehenerdik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

*Itxopondegiz zerbitzua daukagu.
 Deitu ordua hartzeko.*

MATRIKULAZIO ALDIA!
 2021-2022an JAIOTAKOENTZAT

*Goxotasunean
 oinarri sendoak
 eraikiz*



www.elgoibarikastola.eus
 Matrikulazio aldia zabalik
 maiatzaren 20ra arte

943 744441

Elgoibar Ikaste
 P. M. Urruzuno Kooperatiba



**AURREMATRIKULA
 MAIATZAREN
 9tik 27ra**

IKASTETXE PUBLIKO
 DOAKOIA



**UNI
 EIBAR
 ERMUA**



F EGOKITZAPEN FISIKOA
 GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA

M NAZIOARTEKO MERKATARITZA
 GARRAIO ETA LOGISTIKA
 MERKATARITZA JARDUERAK

A ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
 + Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arratsaldez.
 ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

I SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
 WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
 PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
 SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA

ESPEZIALIZAZIOAK
 ZIBERSEGURTASUNA
 INFORMAZIOAREN
 TEKNOLOGIEN
 INGURUNEETAN

OCY MAILAKO ENKIDAK ERRO MAILAKO ENKIDAK

www.uni.eus

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | idazkaria@uni.eus | @uni.eus



“Bizi-kalitatea emango digun gorputza onartzen ikasi behar dugu”

ANDREA OSORO

Psikologoa eta elikadura nahasmenduan aditua

✍️ Ainhoa Andonegi

Andrea Osorok (Elgoibar, 1992) bere azalean bizi izan zuen gordofobia, hau da, loditzeko beldurra. Gorputz perfektuaren bila, kulturismora iritsi zen, eta Espainiako txapelketan parte hartu zuen. Txapelketa irabaztea zuen helburu, baina bigarren egin zuen. "Sekulako porrota" izan zen hori berarentzat, eta orduan konturatu zen gorputz perfektua bilatze hori obsesio bilakatu zitzaiola. Ordurako psikologia ikasten ari zen, eta horrek lagundu zion begiak zabaltzen. Kirola egiten jarraitzen du, baina kulturismoa laga egin zuen. Gaur egun psikologoa da, elikadura eta nortasun nahasmenduan eta lodifobian aditua, eta horri buruzko saioak ematen ditu. Sevillan bizi da, baina duela bi aste Elgoibarren izan zen lodifobiari buruzko saio bat ematen.

Elgoibartik Sevillara. Nola iritsi zinen hara?

Arrazoi pertsonalak tarteko, psikologoarengana joaten hasi nintzen, eta argi ikusi nuen hura zela nik egin nahi nuena. Donostian hasi nituen ikasketak, eta azken urtea Sevillan egin nuen. Bertan aurkitu nuen lana, eta masterrak ere han

egin nituen. Momentuz gustura nago Sevillan, baina egunen batean itzuliko naiz Elgoibarrera.

Elikadura nahasmenduan eta antsietatean espezializatua zara, eta lodifobiari buruzko saioak ematen dituzu. Zer da lodifobia?

Bi modutara ulertzen da lodifobia: kanporako lodifobia da lodi daudenak ez onartzea, eta aldiz, barrurako lodifobia da norberak loditzeari beldurra izatea. Azkenean lotuta daude, lodiak baztertzen dituenak ez duelako lodi egon nahi. Askotan lodi egon direnak dira lodifobia gehien pairatzen dutenak. Bizitzako uneren batean lodi egon dira eta ez dute berriz horretara iritsi nahi. Egunerokoan oso presente dago lodifobia, eta gizartearen eragin handia dauka. Askotan etxetik ikasten ditugu jokabide lodifobikoak: etxe askotan ama beti egoten da dietan, umeei ikusten dute ama beste jateko batzuk jaten, ez duela loditu nahi eta bere gorputzarekiko ardurua handia duela. Hori ez da ona umeentzat, azken batean, ikusten dutena ikasten dutelako. Sare sozialek, telebistak eta Internetek ere eragin handia dute. Oso zabaldua dago lodifobia.

Nola lantzen duzu lodifobia zure pazienteekin?

Saiatzen naiz nire pazienteen beste ikuspegi bat lantzen. Azken batean, norberaren gorputza ez onartzeak esan nahi du ez duzula zure burua onartzen. Errazena, nolabait esateko, gorputza kontrolatzea da, dieta egin eta kiloak kentzea. Askok uste dute argalduta hobeto sentituko direla, baina normalean arazoa beste bat izaten da eta argaldu arren, ez da konpontzen. Lodifobia horren atzean zer dagoen aztertu behar da. Batzuetan nutrizionista edo psikiatrekin elkarlanean aritzen gara, paziente batzuk nutrizio nahasmendu larriekin etortzen zaizkigulako. Bulimia, anorexia edo tripakada hartzea izaten dira nahasmendu ohikoena. Tripakada hartzearen nahasmendua jende askok dauka; hau da, antsietate egoeran gehiegi jatea da hori eta jende askok egiten du, jateak momentuan plazera ematen duelako. Filmeetan ere sarritan ikusten dugu mutil-lagunak utzi duen neska izozkia jaten. Horrelakoak askok egiten ditugu, eta aztertu behar dena da zer gertatzen ari zaion pertsona bati tripakada hartzeko.

Zein adinetan hasten dira horrelako nahasmenduak?

Nerabezaroan hasten dira normalean, 13-15 urte bitartean, baita lehenago ere. Nik, baina, adinez nagusiak direnekin bakarrik lan egiten dut. Adin txikikoekin lan egitean bere familiakoekin ere egin behar da lanketa, eta hori ez dut egiten. 18-24 bitartekoak dira nire paziente gehienak, eta emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago.

"Elikagai-nahasmenduak dituztenen hamarretik bederatz emakumezkoak dira"

Estatistiken arabera, elikagai nahasmenduak dituztenen hamarretik bederatz emakumezkoak dira. Horrez gain, emakumeok errazago hitz egiten dugu honi buruz; gizonezkoetan oraindik gai hau ezkutukoa da. Anorexia eta bulimia gehiago diagnostikatzen zaizkie emakumeei, baina tripakadaren nahasmendua gizonezkoetan ematen da gehiago, nahiz eta isilean gorde.

Etxean, nola landu daiteke lodifobia umeekin?

Umeei ez zaie transmititu behar gorputzarekiko kezkarik. Berez ere, gizarteak irakatsiko die hori; beraz, etxean hori sahiestu behar da. Denetik jan behar dela erakutsi behar zaie, eta mota askotariko gorputzak daudela eta denak onartu eta errespetatu behar direla. Telebistan edo Interneten ikusten ditugun gorputzak ez datoz bat errealitateko gorputzekin, eta hori argi erakutsi behar diegu umei txikitatik. Gorputz argal bat ere askotan ez da osasuntsua, eta horrelako argal daudenak ere askotan ez daude gustura.

Roxy marka ezagunaren kanpainak kritika asko jaso ditu, normalean baino neska lodiagoak agertu dituelako.

Bai, eta hain justu kanpainako protagonista den neska surfista da, kirolaria eta txapelketak irabazitakoa. Kirolari guztiak argalak diren ustea oso zabaldua dago, baina hori ez da horrela. Kirol asko egin eta ondo jan arren, batzuk lodiak dira, euren gorputza horrelakoa delako. Genetikak eta gorputzaren konstituzioak desberdinak dira, eta bi gorputzek estimulo beraren aurrean desberdin erantzuten dute. Errazegi kritikatzeko dira lodiak, osasuntsu ez dauden aitzakia erabiliz, baina askotan ez zaigu beraien osasuna inporta, itxura baizik. Loditasuna berez ez da gaixotasuna. Egia da gaixotasun batzuk sortzeko arrisku faktorea dela, baina lodi asko osasuntsu daude, eta ez egotearen etiketa jarri die gizarteak. Jende asko isolatu egiten da etxean dietan dagoenean, bizitza soziala alboratzen du, eta hori ez da ona. Osasuntsu egoteko osasun mentala, fisikoa eta

osasun soziala orekatu behar dira. Bizi-kalitatea ematen digun gorputza edukitzea da egokiena, taila albo batera lagata. Gizarteak edertasun kanonak ezarrita ditu, eta horiek apurtzea oso zaila da, baina norberak lanketa hori egiten badu, poliki-poliki joango dira gauzak aldatzen. Garrantzitsuena norberak bere gorputza den bezalakoa onartzea da. Lodia izatea beste ezaugarri bat baino ez da, baina ezaugarri hori gaizki ikusia du gizartearen zati handi batek, horrela ikasi dugulako, edo hobe esanda, horrela irakatsi digutelako. Baina hori ez dago ondo, eta askok ez dakite lodiek zenbat sufritzen duten gorputz horren barruan. Ni neu ere ez nintzen horretaz jabetzen, nire kontsultan lodiei laguntzen hasi nintzen arte. Neska batek esan zidan umetan begiratzen zuela bere gelakoen zerrenda eta ikusten zuenean bera zela lodiena, bazekiela ikasturte horretan ez zuela lagunik izango. Oso gogorra da lodi egoteagatik baztertua izatea; onartezina da.

Zuk zeuk ere bizi izan zenuen lodifobia, beraz, zure esperientziatik ari zara orain besteei laguntzen.

Bai, esperientzia ezberdinengatik erabaki nuen arlo honetan espezializatzea, eta nire prestakuntzatik jendeari laguntzen saiatzen naiz, eta esperientzia batzuk bizi izanak gehiago enpatizatzen laguntzen dit. Sekula ez naiz lodi egon, baina beti izan dut loditzeko beldurra. Gorputz perfektua nahi nuen. Kirola egiten hasi nintzen, eta ondo sentitzen nintzenez, gero eta kirol gehiago egiten nuen, muturreraino eraman nuen arte. Kulturismoan lehiatzen hasi nintzen, eta hainbat txapelketa irabazi nituen. Santurtzin hasi nintzen lehiatzen, eta bi aldiz geratu nintzen bigarren Euskal Herriko txapelketan. Gero, Andaluziako txapelketa irabazi egin nuen eta Espainiako txapelketarako sailkatu nintzen. Oso pozik nengoen, baina Espainiakoan bigarren egin nuen eta hura niretzako sekulako porrota izan zen; lur jota geratu nintzen. Orduan konturatu nintzen psikologikoki ez nengoela ondo eta laga egin behar nuela. Nire ikasketek lagundu zidaten konturatzeko ez nenbilela ondo. Orain konturatzen naiz bigarren postua ere oso postu ona zela, baina orduan ezin izan nuen onartu. Kulturismoa lagatzea erabaki nuenean, oso zaila egin zitzaidan gero gorputz normal bat berreskuratzea. Kulturismorako gorputza lortzea gogorra da: dieta oso zorrotza egin behar izan nuen, egunero

"Loditasuna berez ez da gaixotasuna. Egia da gaixotasun batzuk sortzeko arrisku faktorea dela, baina lodi asko osasuntsu daude, eta ez egotearen etiketa jarri die gizarteak"


entrenatu, bizitza soziala baztertu... Baina naizen modukoa izanik, hori erraz egin nuen. Hortik irtetea egin zitzaidan zailagoa.

Gainditu daiteke lodifobia?

Norberak beretik lantzen badu lodifobiaren kontua, bere inguruan bada ere gauzak aldatu daitezke. Mundu edo gizarte mailan gauzak aldatzea oso zaila da, baina txikitik hasita asko egin daiteke. Saltokiek taila handiak edo taila bereziak iragartzea ere diskriminazioa da. Medikuek asko ere atletik sartzen zaion pazienteak lodia dela ikusten badute, ia ezer begiratu aurretik pisua galtzeko esango diote, eta ez zait iruditzen jokabide zuzena denik. Lehenengoa da onartzea lodifobia jarrerak ditugula, eta ondoren, horiek aldatzen saiatu behar gara, bai gureak eta baita gure ingurukoak. Ekidin behar da adibidez udarako edo gabon ostean dietak egitea, edo gure egunerokotik elikagaiak kentzea, azken batean debekatutako elikagai horiek jateko behar handiagoa sortzen diogulako gure buruari, eta uneren batean debekatutako hori antsietatez jango dugulako. Dieta horiek epe luzerako ez dute balio, eta horrelako dietak egiten hasten direnen %95ek huts egiten dute. Ikasi behar duguna eta etxean txikitatik umeei erakutsi behar zaiena da badaudela satisfazioa emango dioten elikagai osasuntsuagoak, baina ez zaike ezer debekatu behar, bestela beti debekatutako horren bila ibiliko direlako. Kirola egitea ere garrantzitsua da, baina kontuan izan behar da pisu handia dutenei kostatzen zaiela, eta gainera, lodia izan denari beti esan izan zaiola ez duela kirola egiteko balio. Ariketa fisikoa ere norberaren neurriera eta gustura egin behar da, gure buruaz gozatzeko eta zaintzeko helburuarekin eta ez gure gorputza aldatzeko helburu bakarrarekin. Bizi-kalitatea ematen digun gorputza onartzen ikasi behar dugu, eta hori beti ez da gorputz argal bat izaten.

Txirrindulari elgoibartarrek emaitza onak eskuratu dituzte Lazkaon, juniorretan zein afizionatuetan

Bi txirrindulari proba jokatu dituzte Lazkaon azken bi asteburuetan, eta bietan igo dira txirrindulari elgoibartarrak podiumaren hirugarren koskara. Afizionatu mailako txirrindularientzako Lazkaoko Proba txirrindulari lasterketa jokatu zuten apirilaren 30ean, eta Lizarte taldeko Paulo Castrillo gailendu zen lasterketa beteteranoan, 79. edizioa baitzuen Euskaldun txapelketarako puntuagarria den lasterketak. Xabier Berasategik bukatu zuen bigarren postuan eta Eiser-Hirumet taldeko Imanol Alvarez elgoibartarrak lortu zuen hirugarren postua. 128,7 kilometroko ibilbidean Larraitz, Lazkaomendi, Olaberria eta Gaintzako gainak igo zituzten. Joan den zapatuan, maiatzaren 7an, txirrindulari juniorrentzako 46. Lazkaomendiko txirrindulari proba jokatu zuten, eta berriro ere txirrindulari elgoibartar bat igo zen podiumeko hirugarren koskara, Elgoibarko Lagun Taldeko Eneko Ortega, hain justu ere. Ibai Azanza (Vizcay Hermanos) izan zen azkarrena 99 kilometroko ibilbidea osatzen. Bi ordu, hemeretzi minutu eta zazpi segundoan. Minutu bat eta 17 segundoko aldea atera zion bigarren postuan helmugara ailegatu zen Aimar Madina (Ulma) txirrindulariari eta Madinagandik 8 segundora heldu zen Eneko Ortega (Besa Laboral Kutxa) helmugara.



Morkaikoren Eguna egingo dute bihar, hamargarrenagoz

Elgoibarko Mendi Itzulia, Itzulitxoa eta Finalista Eguna egun berean batu zituen Morkaiko mendi taldeak 2011. urtean, Morkaikoren Eguna izenarekin. Bi urteko etenaren ostean, hamargarrenagoa izango da aurtengoa. Bihar, hilak 14, egingo dute. Elgoibarko Itzulikoak 6:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik, eta 39 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute herria inguratzen duten mendiak igo eta jaitsez. Guztira, 2.000 metro inguruko desnibel positiboa gainditu beharko dute. Itzulia 10 ordutan egiteko taldea osatuko dute irteeran. Umeek Itzulitxoan parte hartzeko aukera izango dute. 9:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik, eta 10:00etan, Idotorbetik. Bigarren aukera hori aukeratzen dutenei ibilgailua Idotorben aparkatzeko eskatu diete antolatzaileek eta ez Aubixa inguruko errepide bazterrean. Itzulitxoko partaideek Aiastiko anoa postuan berrituko dituzte indarrak, 12:00etan, denak elkarrekin herrira jaitsi aurretik. Finalista Eguneko dominak banatzeko ekitaldia 13:30ean egingo dute



Kalegoen plazan. Aurten bazkaririk ez egitea erabaki dute antolatzaileek, eta ildo beretik, anoa postuetan ur botila txikirik ez dela egongo jakinarazi dute. "Parte-hartzaileei aurrez emango diegun edalontzietan banatuko diegu ura. Beraz, Itzuliko zein Itzulitxoko partaideek eurekin eraman beharko dute edalontzi hori ibilbide osoan", azaldu dute. Itzulia eta itzulitxoa egiteko beharrezkoa da izena ematea, eta kirolprobak-en webgunearen bitartez bakarrik egin daiteke.



Txuri-gorritz jantziko da Olaizaga kiroldegia, Alcantari mailaz igotzeko babesa emateko

Lehen Nazional Mailara igotzeko fasea jokatu du Alcantari Forging Group eskubaloitako taldeak gaurtik domekara bitartean, Olaizaga kiroldegian. Lau talde arituko dira lehen elkarren aurka eta bakarrak lortuko du igotzea. Sanlotik kamiseta txuri-gorriak jantzita joateko eskatu diete zaleei, "gure taldea babestuago senti dadin". Alcantari Fundació Handbol Sant Vicenç Kataluniako taldearen aurka egingo du debuta gaur, 20:00etan. Aurrez, 18:00etan,

B.M. Loyola talde nafarrak eta Gourmet Del Mar Calasancio talde errioxarrak neurtuko dituzte indarrak. Zapatuko jardunaldia Loyola eta San Vincenc taldeen arteko lehiarekin hasiko da, 17:30ean. Alcantari 19:30ean jokatu du Calasancioaren aurkako partida. Domekan, 10:00etan jokatu da aurreneko partida (San Vincenc Vs Calasancio) eta Alcantari 12:00etan jokatu du Loyolaren aurkako partida.

Ume zein heldu antxixkika jarriko ditu berriro ere Jose Gurrutxaga krosak



Bueltan da Jose Gurrutxaga krosa ere, bi urteko etena eta gero. Domekan, maiatzaren 15ean, jokatu dute. Elgoibarko eta Mendaroko 789 antxixkikari gaztetxok eman dute izena Elgoibar Ikastolak antolatzen duen kirol ekitaldirako. Ohi duten moduan, adinka eta sexuka banatuko dituzte haurrak korrikarako, eta hamalau lasterketa izango dira guztira. 10:30ean hasiko da aurrenekoa eta 12:00etan azkena.

June Loidik liga irabazi du Bera Berarekin



June Loidi Etxaniz elgoibartarra jokalaria duen Donostiako Super Amara Bera Bera eskubaloitako taldeak bere historiako zortzigarren liga txapelketa irabazi du, hirugarrena jarraian, denboraldia amaitzeko hiru jardunaldiren faltan. Horrela, Donostiako maila goreneko eskubaloitako taldeak historia egiten jarraitzen du, eta historia horren parte da orain denboraldi honetan taldera batu den Loidi. Defentsako lanean taldeko zutabeetako bat izan da 22 urteko hegaleko jokalaria.

Haundik Errege Kopan aritzeko sailkapen fasea jokatuko du ekainaren 4an

Leiga bukatzeko bi jardunaldiren faltan lortu du Touring futbol taldeak Hirugarren Mailarako igoera, jokoan zegoen sari nagusia. Haundi, txapelkunorde geratzeko aukera handiak dituen arren, igo gabe geldituko da, baina ez saririk gabe, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Errege Kopako sailkapen fasea jokatuko baitu. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako talde banak jokatuko dute hiruko txapelketa, ekainaren 4an. Oraindik zehazteke daude lekua eta aurkariak. Fasea gainditzen duen taldeak Espainiako Errege Kopan lehiatzeko sailkatzea lortuko du. Talde horrek maila berean diharduen aurkaria -Espainiako talde bat- izango du Errege Kopako lehen kanporaketan, baina kanporaketa hori gaindituz gero iritsiko litzateke sari potoloa: Espainiako Lehen Mailako talde baten aurka etxean jokatzea, partida bakarrera. Hortaz, laburbilduz, Haundik Espainiako Lehen Mailako



talde baten aurka Errege Kopako kanporaketa jokatuko dezake Mintxetan, aurrez sailkapen fasea eta kanporaketa bat gainditzen baditu.

Aubixan eta Asturiasen egingo du Sanlok eskubaloi campusa

Ohiko formatura itzuliko da aurten Sanloren udako eskubaloi campusa, eta bi txandatan antolatu dute: Llanesen (Asturias, Espainia) bata eta Aubixan bestea. Aurreneko txanda edo egonaldia Aubixan egingo dute, uztailaren 11tik 17ra bitartean. Alebin eta benjamin mailako neska-mutilentzat izango da, edo beste era batera esanda, 2010etik 2013ra bitartean jaiotakoentzako. Eskubaloiarekin lotutakoez gainera, Aubixan egingo duten egonaldian hainbat jarduera egingo dituzte, besteak beste, hondartzako eskubaloia, mendi-irteerak, festak eta hainbat jolas. Aubixakua mantenu osoko egonaldia izango da. Sanloko jokalarientzako prezioa 290 eurokoa izango da, eta 325 euro ordaindu beharko dute Sanloko jokalariei ez direnek. Bigarren egonaldia uztailaren 19tik 26ra bitartean egingo dute Llanesen. 2008an eta 2009an jaiotakoentzat izango da, infantil mailakoentzat alegia. Llanesen ere mantenu osoan egingo dira eta hainbat jarduera egingo



dituzte: irteerak kanoan, eskubaloia hondartzan, txangoak, e.a. Sanloko jokalarientzako prezioa 375 eurokoa izango da, eta 390 euro ordaindu beharko dute Sanloko jokalariei ez direnek. Plazakopurua mugatua dela ohartarazi dute Sanlotik. Informazio osoagoa eta izena emateko: <https://sanlo.net>.

LANA

Eskaerak

Udan umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **674 663 431**

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, gauetan eta asteburuetan. Esperientzia handia dut. **643 071 900**

Adinekoak zaintzeko prest nago, esperientzia eta titulua ditut. Etxeko langile moduan, orduka eta ospitaletan gauak pasatzeko ere prest nago. **602 490 595**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetan aritzeko prest nago. **632 061 519**

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Gauzez ere bai. Mendekoak zaintzeko prestakuntza eginda daukat. **631 212 497**

Adinekoak zaintzeko prest nago; esperientzia eta titulua ditut. Etxeko langile moduan edo orduka aritzeko prest. **632 642 320**

Adinekoak zaintzeko edo zerbitzari moduan lan egiteko prest nago. Esperientzia. **643 440 462**

16 eta 17 urteko bi neska gara eta lan egin nahiko genuke, ekainean eta uztailean, umeak zaintzen edota merkataritzan, dendaren batean. **609 715 085**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulua ditut. Etxeko langile moduan aritzeko prest. **631 425 686**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Berehala hasteko prest. **632 415 374**

Garbiketak egiteko, sukaldean laguntzeko edo zaintza lanetarako prest nago. Eskarmentua eta elikagajak manipulatzeko titulua ditut. **643 427 770**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **641 947 065**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **641 942 123**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Titulazioa daukat. **641 322 939**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **612 531 623**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Goizez, orduka. **632 116 534**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Asteburuetan ere bai. **602 342 429**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Asteburuetan ere lan egiteko prest. **662 460 266**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. **631 218 724**

Edozein lan egiteko prest nago. Paperak legeaz ditut. **631 677 339**

OSPAKIZUNAK

1971n jaiotako en bazkaria maiatzaren 28an, Belaustegin. 80 euro sartu maiatzaren 13rako: ES65 3035 0007 21 0071141938. (Izena eta abizena jarri). (1971elgoibar@gmail.com).

BESTELAKOAK

Eraztun bat aurkitu dut, ezkontzako dirudi. **612 462 120**

Txakurkumeak oparitzen dira. **688 642 761**

Gurpildun aulki elektrikoak salgai. Prezio onean. **618 813 975**



administradores

Consejo Técnico de Colaboradores de Administradores de Empresas
Asociación Española de Administradores de Empresas



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean badira bi jabe ez dutenak komunitateko kuota ordaintzen. Jabeen azken bileran, igogailu zerbitzua kentzeko aukera aztertu genuen. Jakin nahi nuke ea erabaki hori har dezakegun.

Eraikin batean hasieratik igogailu bat jarri bada, elementu edo instalazio hori plangintzaren hirigintza arauen arabera ipini da. Gainera, eraikuntza arauak ere hartzen dira kontuan eraikinaren, bertan bizi direnen edo sartu behar direnen mugikortasun bermatzea dutelako helburu. Hortaz, funtzionaltasun baldintza bat ematen du eta ezin da kendu, betiere behar bereziak dituen pertsonaren bat egon daitekeela kontuan hartuta. Ezinbestekoa da eraikinek horrelako bizigarritasun eta funtzionaltasun baldintzak bermatzea. Horiek agindu-zuzenbideak edo beharrezko arauak babestutakoak dira. Beraz, beste modu batean, jabeen bileran hartutako edozein akordio legeaz kanpokoa da. Egoera horretan, irisgarritasun eskubidea bermatu ezean edozein pertsonak auzitegitara jo ahal izango du instalazio hori indarrean egon dadin edo berriz martxan jar dezaten eskatzera.

Aholkua: Igogailuak ezin dira kendu edo erabat gelditu, edozein akordio hartuta ere. Izan ere, hori edozein egitura elementu kentzearen parekoa litzateke, eskailerak edo eraikinaren estalkia kentzearen pareko, esaterako.

ASOCIACIÓN GOAR **AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**
San Bartolome, 2




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak **Nora**, gaur 11 urte egin dituzulako. Ondo pasa zure urtebetetze festan! Muxu potolo bat, etxekoan partez.



Zorionak **Teo**, atzo 10 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat, etxekoan partez. Gure futbolariak 8 urte handi!



Zorionak **Eneko**, eta muxu handi bat etxeko guztiaren partez.



Zorionak **Leire**, printzesa, gaur 6 urte bete dituzulako. Besarkada handi bat, familiakoan partez.



Zorionak, **Asier**, maiatzaren 17an, 5 urte egingo dituzulako. Ondo pasa, txapelkun!



Zorionak! 59 urte alkarri bai esan zenietela! Ondo baiño hobeto ospatu gendun Aittola Zaharren. Eta datorren urtian... 60! Eutsi orain arteko bizipozari! Etxekuak.



Zorionak **Laia** maiatzaren 17an 6 urte egingo dituzulako. Amama, tia Yolanda eta bereziki Sararen partez muxuak.



Zorionak, **Enaitz!** Atzo 8 urte! Aitatxo, amatxo eta familia guztiaren partez. Muxu pila bat!!

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA



LAGUNAK
saltsakeria, testil hogor

6 hilabete
interesik gabe
atseden hartzeko
produktuetan!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

ROWENTA X-PERT 3.60 RH6971WO FLEX ANIMAL ERRATZ XURGAGAILUA

GARBIKETA **B**

LEHORTZEA **E**



- 9 kg garbiketa
- 6 kg lehortzea
- 1.400 b/min
- Hasiera geroratua
- Wash turboa
- Ur-lurruna
- Smart diagnosia
- AIDD TM

629 €

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

13 BARIKUA

16:30-20:30 Catan mahai-jokoa ezagutzeko jardunaldia. Mendaroko Uztargi tabernan.

19:00 Migratzaileen erregularizazioa eskatzeko sinadura bilketa. Mendaroko Herriko Enparantzan.

14 ZAPATUA

MORKAIKO EGUNA

6:00 Elgoibarko Itzulia. Kalegoen plazatik. Morkaikok antolatuta.

9:00 Elgoibarko Itzultitxoa. Kalegoen plazatik. Morkaikok antolatuta.

13:30 Finalista Eguna. Domina banaketa, Kalegoen plazan. Morkaikok antolatuta.

10:00 Emakumeentzako bizipen tailerra. 'La rueda de la vida'. Mugimendu, sormen, arte plastiko eta mindfulness dinamikak. Belen Capapé emango du. Lilan, gaztelaniaz.

10:00 Arkeologia esperimentaleko jardunaldia, Mendaron. Arnok antolatuta, Elgoibarko Hezur Museoaren laguntzarekin. Santa Kurutzen. Izena emandakoentzat bakarrik.

12:00 'Apirileko Feria', Mendaron. Flamenko eta sevillana dantzak, Aitzbeltz tabernan.

14:00 Karakaten jarri nahi dituzten eoliko kontrako talde argazkia. Karakate Bizirik plataformak deituta, Kalegoen plazan.

16 ASTELEHENA

18:00 Zine foruma: 'La cabaña'. Bihotzetik elkarteak antolatuta, heriotzari buruzko zine-foruma izango da, Amaia Gozategik gidatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

15 DOMEKA

10:30 Jose Gurrutxaga Krosa. Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazatik hasita.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Egitaraua:

1. *El camino* (J.V. Egea)
2. *La gran vía* (Chueca-Valverde)
3. *Highlights from exodus* (Ernest Gold)
4. *Eloise* (P. Ryan)
5. *Aihotz plazaren lagunak* (Juanma Sanz).

17 MARTITZENA

19:00 Haur eta nerabe transexualen inguruko hitzaldia. Mendaroko Udaleko Otarre aretoan.

19:00 Hitzaldia: 'Euskaraldiaren barruetan arakaten' hitzaldia emango du Kike Amonarrizek. Elgoibarko Euskaraldia taldeak antolatuta, Aita Agirre kulturegunearekin areto nagusian.

19 EGUENA

17:00 eta 17:30 Ipuin kontalaria: 'Ipuineketan'. Maider Galarzaren eskutik, Udal Liburutegian. Lehen saioa LH1ekoentzat eta bigarrena LH2 eta LH3koentzat.

18:00 'Emakume zientzialarien topaketa'. Leire Garate, Ane Garmendia eta Nagore Ruiz de Escuderoekin. Moderatzailea: Ana Galarraga. Ondoren, klownklusioak, Beatriz Egizabalekin, eta bukatzeko, mokadutxoa. Lilan.

18:30 Hitzaldia: Jokin Bildarratz. Hezkuntza Sailbuak hezkuntza lege berriari buruzko hitzaldia emango du. Aita Agirreko areto nagusian.

19:30 'Pintxoconcert'. Musika Eskola parean, Aita Agirre parean, Lekuederren, Kalebarren plazan eta Kalegoen plazan. Musika Eskolak antolatuta.

20 BARIKUA

17:30 Erromeria, umeentzat. Azkueko zelaian. Ludotekak, Atxutxiamaikak eta I. Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta.



Zinea

'Coda: los sonidos del silencio'

- 13 barikua: 19:00
- 14 zapatua: 19:00/22:15
- 15 domeka: 19:00
- 16 astelehena: 21:00

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

<p>13 BARIKUA Egunez Yudego</p> <p>Iluntzean Yudego</p>	<p>14 ZAPATUA Egunez ■ Oruesagasti ■ Arriola</p> <p>Iluntzean ---</p>	<p>15 DOMEKA Egunez ■ Oruesagasti</p> <p>Iluntzean ---</p>	<p>16 ASTELEHENA Egunez Barrenetxea</p> <p>Iluntzean Barrenetxea</p>
<p>17 MARTITZENA Egunez ■ Ibañez</p> <p>Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>18 EGUAZTENA Egunez Garitaonandia</p> <p>Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>19 EGUENA Egunez Arriola</p> <p>Iluntzean Arriola</p>	<p>20 BARIKUA Egunez ■ Fernandez</p> <p>Iluntzean Barrenetxea</p>
<p>■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>	<p>■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>	<p>Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106</p>

Eta, Debabarrenean zer?

'ALTSASU' antzerkia. **Maiatzak 20, Ermua Antzokian, 20:30ean.** 2016ko urriaren 15eko goizaldean Altsasuko (Nafarroa) Koxka tabernaren atarian istilu bat izan zen, herriko zenbait bizilagunen, Guardia Zibileko bi agenteren eta haien bikotekideen artean. Gaur egun, hainbat gaztek hirugarren graduan jarraitzen dute.



Emilio Rumayor Maldonado

2022ko maiatzaren 8an hil zen, 93 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Gogorra izango da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko,
baina bizi garen artean
ez zaitugu, ez, ahaztuko.**

Etxekoak





Angel Bazterretxea (Mutriku, 1936 - Mendaro, 2019) Mendaroko abade izandakoak bere garaian lagatako argazkia da gaur erretratu zaharren atal honetara ekarri duguna. Argazkian ageri direnak ikastolako umeak dira, Mendaroko ikastolako lehenengo andereño izandako Juanita Loiolaren ikasleak, eta Garagartzan eginda dago argazkia, orduan haurreskola zegoen inguruan. Erretratua bera ez dago datatuta, baina argazkikoek eurek 5-6 bat urte izango dituztela uste dute, eta beraz, 1980. urte ingurukoa behar du izan. Ikus ditzagun zeintzuk diren argazkiko lagunak. Goian tente ageri den neska ile-horia: Amaia Esnaola. Tente, eskua aho aurrean duena: Eduardo Zubiaurre, eta haren ondoan, albozka: Aitor Arrillaga. Behean, makurtuta eta ezkerretik hasita: Gaizka Lazaroaster, Igor Rey, Javier Garcia, Aitor Goikoetxea, Jose Luis Garcia, Ander Garate, Andoni Egaña, Unai Zelaia eta Jon Mendikute. Erdiko lerro batean ageri den ile horia: Igor Esnaola.



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



GREMIONEN GIDA

AROTEGIA

Ulazia

AROTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albituri industrialdea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA

egoluz 

ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
ego.luz@hotmail.com

ITURGINTZA

ongi iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: **943 254 522**
Faxa: **943 254 523**

ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

AROTEGIA

 **iraolagoitia**

arotegia - altzariak - etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

LEIHOAK

 **LODOSO**
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com

943 743 490

ITURGINTZA

SANTANA 

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

AROTEGIA

MAR
AROTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8
943 740 512
fax: **943 743 565**
tienda@pagoagasasa.com
www.pagoagasasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasasa.com
943 740 279

AROTEGIA

Arotegia  Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar
687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaarotegia@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS
MARRILLAGA

Errosario kalea, 15 behea - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua


angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zia
Elgoibar

610 226 651

AROTEGIA

Biena S.L.
AROTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



ej
pnv

ELGOIBAR

Hezkuntza lege berria

JOKIN BILDARRATZ

Hezkuntza sailburua

ELGOIBAR

Aita Agirre kulturguneko areto nagusian
Maiatzaren 19an, 18:30ean